

Vitoria-Gasteizko San Silvestreko lasterketako parte-hartzaile orok, parte hartze hutsagatik, probaren araudia onartu beharko du

Irakur ezazu, mesedez, arauak zein diren jakiteko.

Arabako Atletismo Federazioak Vitoria-Gasteizko XXXVIII. San Silvestre lasterketa antolatu du 2022ko abenduaren 31rako.

1. 15 urtetik gorako edonork parte har dezake lasterketan, aurretik izena emanda: berdin atleta federatuek zein federatu gabeek. Ibilbideak 6 km izango ditu, asfaltoan oso-osorik. Dena den, antolakuntzak aukera izango du zirkuituan aldaketak egiteko, baldin eta egoerak hala eskatzen badu. Gehienez, 2.000 dortsal banatuko dira.
2. IZENA EMATEKO, webgune honetara jo behar da: <http://www.mediamaratonvitoriagasteiz.com/>, abenduaren 7tik abenduaren 28ra, egun hori barne. Kreditu- edo zordunketa-txartelaren bidez ordaindu behar da, izena emateko unean bertan.

Behin izena emanda, ez da dirua itzuliko, eta ezingo da norbaiten inskripzioa beste norbaiten izenean jarri.

IZENA EMATEKO PREZIOA: 4 euro

Herri-lasterketako inskripzioa solidarioa da: 0,50 euro Saharako Kirol Federazioari emango zaizkio. Helmugan, bildutakoaren balioko Taloi Solidarioa emango zaie parte-hartzaileei. Gero, sariak banatuko zaizkie 2022ko San Silvestre lasterketako irabazleei.

ELITEKO ATLETAK. Honako gutxieneko marka hauek lortuak dituzten atleta federatuek doan eman ahalko dute izena, eta eremu erreserbatu bat izango dute irteeran. Arabako Atletismo Federazioan eman beharko dute izena.

ELITEA	5 Km.	10 Km.	Maratoi Erdia	Maratoia
GIZONAK	16:00	32:30:00	1:12:00	2:35:00
EMAKUMEAK	19:00	39:00:00	1:26:00	3:00:00

3. DORTSAL TXIPDUNAK NON HARTU:

Vital Fundazioko erakusketa-zentroan (Posta kalea, 13-15)

Zer egunetan: abenduaren 29an eta 30ean

Zer ordutegitan: 10:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 20:30era

4. HERRI LASTERKETAKO SARIAK (Arabian lizentzia duten atletentzat eta Arabian bizi diren zaleentzat bakarrik)

SAILKAPENA CLASIFICACIÓN		GIZONAK CAT. MASCULINA	EMAKUMEAK CAT. FEMENINA
PROBINTZIAKOAK PROVINCIAL	1	600,00 €	600,00 €
	2	400,00 €	400,00 €
	3	200,00 €	200,00 €

5. Lasterketa 12:30ean hasiko da, Mendizabalako aparkalekuan. Helmuga leku berean izango da. Lasterketa bukatzeko, ordubete izango da gehienez. Dorsal txipduna bularrean jarri beharko da, ondo ikusteko moduan, tolestu gabe.

6. IBILBIDEA. IRTEERA Mendizabalako aparkalekua, Lasarteko Atea kalea, Elvira Zulueta kalea, Gasteiz hiribidea, Gasteiz hiribidean 180°-ko bira San Viator kalean, Gasteiz hiribidea, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, Gustavo Maeztu Margolariaren kalea, Adriano VI.a kalea, Gasteiz hiribidea, Elvira Zulueta kalea, Lasarteko Atea kalea, HELMUGA Mendizabalako aparkalekua.

7. Antolatzaileek baimendutako ibilgailuak baino ezingo dira ibili ibilbidean.

8. Ibilbidea oinez egin beharko da, hots, ezingo da egin patinetan, patinetean, bizikletan eta halakoetan. Maskotekin batera ere ezingo da korritu. Segurtasun-arrazoiak direla-eta, helmuga ezingo da gurutzatu adingaberen batek lagunduta. Debekatuta dago dorsalik gabe parte hartzea.

9. Arabako Atletismo Federazioko Epaila Batzordeak kontrolatuko du lasterketa, eta denborak, berriz, era elektronikoan hartuko dira, txipen bidez. Sailkapen osoak Maratoi Erdiaren webgunean egongo dira eskuragarri: www.mediamaratonvitoriagasteiz.com.

10. Lasterketan parte hartzeak kalte-galerarik edo lesiorik eraginez gero –atletak bere buruari, atletak beste inori, edo beste edonork atletari–, antolakuntzak ez du bere gain hartuko horien erantzukizuna.

11. Izena emandako guztiek lasterketarako aseguru espezifikoak izango dute. Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko izena eman gabe korrika egiten dutenen erantzukizuna.

12. Parte-hartzaile orok, parte hartze hutsagatik, araudi hau onartu beharko du. Araudi honetan ezarri ez den guztian, Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkartearen (IAAF) araudiari men egingo zaio.

OHARRA – Atzerriko atletak / RFEAren lasterketen araudia.

Arau orokorrak / 3.4 artikulua: Lasterketa autonomikoak.

Arau orokor gisa, halako konpetizioetan ezingo dira aritu ez RFEAren laguntza ekonomikoa duten atleta espainiarrak, ezta atzerriko atletak ere. Ez kasu batean eta ez bestean, ez da halako debekurik izango baldin eta atletak egutegi autonomikoko probaren baterako lizentzia badu.